


RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK **ELIKAGAIAK** **2012ko HIRUGARREN LAUHILEKOA**

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Aurreko lauhilekoarekin erkatzea

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2012ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko **913 jakinarazpen** izan dira. Horietatik **160 alertak izan dira (% 17)**, **210 informazio-jakinazpenak (% 27)** eta **513 mugan egin diren ukapenak (% 56)**.



JAKINARAZPENEN JATORRIA


Honako hauek izan dira kutsatutako elikagaien jatorrizko herrialdeak:

Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **29,5 Turkiakoak** izan dira, eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **24**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Espania** eta **Polonia** izan dira: % **9,5** eta % **9**, hurrenez hurren. **Afrikari** dagokionez, **Maroko** gailentzen da herrialde guztien artean (jakinarazpenen % **22,5**). Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **35**) eta, jarraian **AEB**, (% **33,5**).



KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2012ko hirugarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 913 alerta eta jakinarazpen** berri eman ditu. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen % **88 Aflatoxinek** eragindakoak dira, eta horrelakoetan, **pikuak** kutsaduren % **55,5** eragin ditu. Kasu guztietan (% 100) pikua **Turkiatik** zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, Salmonella spk kutsaduren % **47,5** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **80,5**ean. Lauhileko honetan ez dago gainerakoen artean nabarmentzen den produkturik, eta inplikaturako produktuak zein herrialdeak oso banatuta egon dira. Beste Salmonellei dagokienez, % **7,5a Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 100 eta %57ko kasuetan Asia izan da jatorria) eta % **12a Salmonella typhimurium** (haragiak eragin ditu kasuen % 100, eta % 64an Europa izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, Listeria monocytogenes dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % 15,5. Inplikaturako produktuei dagokienez: **gazta (% 26,5) eta izokin ketua (% 23,5)**. Listeriak eragindako jakinarazpen ia guztiak **Europan** egin dira (%99a).

Kutsatzaile kimikoei dagokienez, gehigarriak eta koloratzaileak dira eragile nagusiak (**kasuen % 39**) eta, kasu honetan, Salmonellaren kasuan bezalaxe, ez dago ez produktu, ez herrialde nabariagorik.

Pestiziden eta sendagaien hondakinak kasuan, **pestizidak % 65** izan dira eta horien artean **barazkiek eragin dituzte jakinarazpen gehien (% 68,5)**. Barazkien % **74a asiarrak** dira. **Sendagai-hondakinak** aurreko lauhilekoan baino hainbat jakinarazpen gehiago eragin dituzte (kasuen % 35). **Elikagai osagarriak eta dietetikoak** nabarmentzen dira (% 55), eta erdiak (% 50) **AEBkoak** izan dira.

Metal astunei buruz esan behar da merkuriokoak eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **28**.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	KOP. (%)	INPLIKATUTAKO PRODUKTUAK	KOP. (%)	JATORRIA	KOP. (%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	179	Aflatoxinak	157 (88%)	pikuak	87 (55,5 %)	Turkia	87 (100%)
Kutsadura biologikoa	193	Salmonella sp.	92 (47,5%)		ez dago produktu nabariagorik besteak baino		
		Salmonella sp.	74 (80,5%)	haragia; espeziak; belar aromatikoak	ez dago produktu nabariagorik besteak baino		
		S.enteritidis	7 (7,5%)	oilaskoa	7 (100%)	Asia	4 (57%)
		S.typhimurium	11 (12%)	haragia	11 (100%)	Europa	7 (64%)
Kutsadura kimikoa	80	Koloratzaile eta gehigarriak	31 (39%)	espeziak, saltsak goxokiak,ozpinetakoak	ez dago produktu nabariagorik besteak baino		
Hondakinak	209	Pestizidak	136 (65%)	barazkiak	93 (68,5%)	Asia	69 (74%)
		Botikak	73 (35%)	dietetikoak	40 (55%)	EEBB	20 (50%)

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- **Mikotoxinek** eragindako jakinarazpenen kopuruak **gora** egin du (% 14tik % 20,5era).
- **Produktuen egoera higieniko txarrak** eragindako jakinarazpen eta alerten kopuruak, berriz, **behera** egin du (% 12tik % 8,5era).
- **Aflatoxinek** eragindako kasuen kopuruak **gora** egin du (92 jakinarazpen izan ziren, eta orain 157 izan dira).
- **Metal astunek askoz** jakinarazpen **gutxiago** eragin dituzte, 76tik 50era.
- **Gehigarrien kasuan**, kopuruak **nabarmen egin du behera** (% 67tik % 39ra).
- **Merkurioak askoz** jakinarazpen **gutxiago** eragin dituzte (% 44,5etik % 28ra).
- **Pestiziden hondakinek**, berriz, **askoz ere jakinarazpen gutxiago** eragin dituzte (190 izan ziren, eta orain 124 izan dira).
- Aflatoxinek eragindako jakinarazpenetan **pikua** egon da inplikaturata % 55,5 kasuetan, jatorria Turkia izanik %100 kasuetan.
- **Asia jatorri** moduan duten jakinarazpen kopurua **nabarmen igo** da: %39tik %55ra.